

**BIZKAIA ZUBIAREN 125. URTEURRENA**
125 ANIVERSARIO PUENTE BIZKAIA

2019-02-11 Portugaleta 11-02-209

Lehendakariaren hitzaldia-Discurso del Lehendakari

Portugaleteko alkate jaunak, bai Foru Diputatua, sailburuorde, baita azpiordezkaria, portuko presidente, herri agintari eta ordezkariok, “Bizkaia Zubia”-ren arduradunok, jaun andreok, egun on.

Zorionak “Bizkaia Zubia” 125garren urteurrenean eta eskerrik asko elkartu zareten guztioi, etorritako guztioi.

Urtemuga honek gure iragana gogoratzeko eta etorkizunari begira jartzeko balio izan digu. Urteurrena iraganaren eta etorkizunaren arteko **zubia ere izan da**.

Antolatutako ekitaldiei esker gogoratu dugu zubi honen irekierak nazioartean izan zuen oihartzuna. Era berean, arkitektura-lan honen garrantziaz ohartu gara: burdinezko egiturako **munduko lehen zubi esekia izan baitzen**.

Este 125 aniversario ha servido para valorar más nuestro patrimonio cultural y nuestro patrimonio industrial.

Durante estos meses hemos podido recordar y reconocer a Alberto Palacio Elissague, natural de la localidad labortana de Sara, afincado en Bizkaia, tuvo que huir al exilio tras la Guerra Civil. Una persona y un arquitecto excepcional que nos legó su gran obra: este Puente Colgante o Puente Bizkaia.

Nos encontramos ante una de las obras más destacadas de **arquitectura del hierro de la revolución industrial**, declarada Patrimonio de la Humanidad por UNESCO en 2006.

Este Puente es símbolo de la edad de oro de la industria vasca, de nuestro pasado metalúrgico y de una revolución industrial que transformó profundamente nuestra sociedad.

Gizarte industrial baten oinordekoa da zubi hau: burgesia ekintzaile baten ahalmenaren emaitza eta langileen memoriaren maparen monumentua.

Bizkaia Zubia ikur bilakatu da, hemen, itsasadarraren alde bietan zegoen kemena ondo baino hobeto ordezkatzeko duelako. Gogoratzen digu gure iragana eta **garai berrietara egokitzeko dugun gaitasuna.**

Ezkerraldea eta Eskuinaldearen artean dauden 150 metro lotzeko jaiotzen zen 1893an Bizkaia Zubia. Garai hartan amildegi bat zegoen bi ertzen artean. Gaur, oso bestelako gizarte bat elkartzen du.

Hace 125 años el Puente Bizkaia separaba dos mundos que vivían de espaldas. Hoy, afortunadamente, **integra una sociedad más cohesionada.**

Este es el gran “éxito social” que pone de manifiesto esta gran obra. La constatación de que la sociedad vasca ha sido capaz de **tender puentes entre personas** de diferentes orígenes, estratos sociales e ideologías **sobre los sólidos cimientos del respeto y la tolerancia.**

Zubiak eraikitzen jarraitu behar dugu eta zubigintza lan horri, orain 125 urte bezala, **anbizioz eta artez ekiten asmatu behar dugu.**

Zorionak Bizkaia Zubia eta urte askotarako!